



Gerra zibila

1936ko fusilatzeak

■ Luix Errazkin eta Unai Agirre

“Urtetan egindako zorra genuen duela 75 urte, 1936ko udazkenean Hernanin hil edota hobiratu zituztenekin eta haien desagerpenaren samintasuna isilean, sarritan ezkutuan, malkoak erakutsi gabe luzaroan bizi beharra izan diten ahaide eta lagunekin. Errepublika demokratikoaren aurka 1936ko uztailaren 18an altxatu zirenek berrehun bat lagun fusilatu edota lurperatu zituzten Hernanin, izenik gabe epaiketarik gabe, inolako errukirik gabe. Eta orduan desagertutakoak ez dira ageri izan diktadurako urte luzeetan, ez zitzaizen hilobi duin bat eskaini, are gehiago, amnesian oinarritu nahi izan zen *diktadorea hil ondoren sortu zen Estatu berria*, eta oraintsura arte *ezer asko ez zaie eskaini frankistek betiko ahanzturara kondenatu nahi izan zituztenei. Zor hori kitatu beharra *dugu*, eta memoria eta duintasuna berreskuratu”.*

(“1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak”)

GERRA ZIBILA

1)

Hernani herri bildua;
 bizi beharrak zaildua;
 lanean korapildua.
 Mila beatzirehun hogeita hamasei
 triste hartan abaildua;
 nahigabeen amildua;
 uztaile beltzak umildua;
 tiro hotsek isildua.

2)

Gerrako abioi tutu,
 lubaki erdi-ekzutu,
 elkarren aurka estutu...
 Kanposantuko pareta zaharrek
 zer ez zuten ezagutu?
 Zahar eta gazteak juntu,
 bala errazen jo-puntu;
 orduan ziren mututu.

3)

Herri honen azpi lotsak,
 desberdinak guztiontzat,
 zer indar dun heriotzak!
 Galarretatik Tellerigaina
 zeramazkiten hilotzak...
 hausten zituen bihotzak,
 eta isiltasun hotzak:
 gurdiaren negar hotsak.

4)

Herriko jende aparta
 lurperatu zen hamarka,
 zapata eta abarka;
 izeba zenak, izen abizen,
 esan zizkidan bakarka...
 falangista eta carca
 denez oroitzea marka!
 ta ni mututzea barka...

5)

Suntsitze antolamendu
 hau da gordean mantendu,
 nahiz ta seguru gauden gu.
 Ondarretako kartzela zena
 gogotikan ezin kendu!
 Urri, azaro, abendu,
 itsasoak ekartzen du,
 baldin entzun nahi bagendu.

6)

Galdutakoen altzora,
 oroigarri eta lora,
 jarri duenik asko da.
 Hor lurperatu omen zituzten
 berrehun gorputzetik gora;
 berriz hezurak kanpora,
 eraman ziren gerora,
 norbaitek badaki nora...

7)

Kanpandorreko ezquila;
 agonian norbait hila,
 hiru urtez zenbait mila...
 Hernanin hainbat hildako utziz
 joan zen Gerra Zibila;
 askok jarraitzen du bila,
 eskatuz entzun dadila:
 GERRAREN OIHU ISILA